

ALOKABIDEK HIRU HILABETEKO HAURRA **DUEN FAMILIA ETXEGABETU NAHI DU**

Familiak iruzur bat jasan zuen 2023an, eta 2000 euro ordaindu zituen Salburuako pisu batera bizitzera joateko. Hilabete batzuk geroago, urte hasieran konturatu ziren Alokabideren etxegabetze prozesu batean murgilduta zeudela. Orduan ohartu ziren iruzurraz. Orduetik, Alokabidek ez du inoiz familia honentzat irtenbiderik proposatu. Hona mugatu dira: etxegabetzea aurrera eramatea erabaki dute negoziaketa biderik ireki gabe.

Egoera horretan, lehen jautziketa-data bat iritsi zen ekainaren 3rako eta Gasteizko Etxebizitza Sindikatuaren laguntzarekin batera, atzeratzea lortu genuen. Gizarte zerbitzuek ere ez dio inolako alternatibarik eskaini familiari. Orain, berriro ere, etxegabetze data berri bat eman diete, uztailaren 18a, osteguna, goizeko 10:00etan, Bulevar de Salburuako 64. zenbakian.

Horrela, Alokabideren jarduera salatu nahi dugu, izan ere, ez du ezer egin zaurgarritasun egoeran dagoen familiaren ongizatea bermatzeko. Era berean, iruzurgileak eta hauen praktika antiproletarioak salatzen ditugu, etxebizitzarako sarbideak sortzen duen zailtasun eta babesgabetasunaz baliatzen baitira.

Horrenbestez, guztioi luzatzen dizuegu deia datorren **uztailaren 18an, ostegunean, goizeko 10:00etan, Bulevar de Salburua kaleko 64.ean gauzatuko den etxegabetzeari aurre egiteko.**

Batu etxegabetzeei aurre egitera!



**KONTSEILU
SOZIALISTA**
GASTEIZ



**Etxebizitza
Sindikatu**